KONTRATU HAU PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA:

“Bizkaiko startupen azelerazioa eta hazkundea sustatzeko prestakuntza programa diseinatzeko eta ezartzeko laguntza teknikoko zerbitzua”

ESP. ZK.: BEA2/2025

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK 3
2. KONTRATATU BEHARREKO ZERBITZUAREN BEHARRA 3
3. XEDEA ETA LIZITAZIO-EREMUA 4
4. EGIN BEHARREKO LANAK 6
5. BALORAZIO-IRIZPIDEAK 13
6. KAUDIMEN-IRIZPIDEAK 19
7. AZKEN XEDAPENA 22

1. AURREKARIAK

Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburua Bizkaiak lurralde berritzailea den aldetik duen posizionamendua indartzea da, talentua eta erakarpena dituen lurralde konektatua eta orekatua den aldetik, biharko Bizkaiak kalitatezko enplegua sortu eta mantentzeko gaitasun handia izan dezan eta Europaren abangoardia ekonomikoa eta soziala izateari eutsi diezaion.

Horretarako, Ekonomia Sustatzeko Sailak politika publiko sorta zabala garatzen du, **Bizkaian ekintzailetza aurreratuari laguntzeko ekosistema berri bat sortzea sustatzeko**. Ekosistema horrek nazioarteko sistema aurreratuenen bikaintasun mailekin lan egingo du; Bizkaiko enpresa txiki eta ertainen berrikuntza eta nazioartekotzea bultzatuko ditu eta ekonomia digitalera egokituko ditu; talentua erakarri eta atxikiko du; eta eskualde mailako lehiakortasunari lagunduko dio, Bizkaiko eskualdeen garapen orekatua eta sustapen ekonomikoko ekimen guztien beharrezko kapilaritatea lortzeko.

2. KONTRATATU BEHARREKO ZERBITZUAREN BEHARRA

Beaz, Bizkaiko Foru Aldundiko sozietate publikoa. Enpresa eta pertsona ekintzaileei laguntzea du helburu, proiektu berriak sortzeko, berritzeko eta nazioartekotzeko ahaleginean. Jarduera ekonomikoa hazten eta enplegu kualifikatua sortzen laguntzeko helburuarekin jarraitu nahi du.

Oraingo honetan, xedea da helburu hori lortzea, errendimendu handiko azelerazio-programa berria abiaraziz eta abian jarrita: ***Beaz Acceleration Program***. Ekimen berri honek Bizkaiko Startup disruptiboekin lan egin nahi du, teknikoki baliozkotutako produktua/zerbitzua eta negozio-eredu fidagarria dutenak eta hazteko fasean daudenak. *Beaz Acceleration Programek* Bizkaiko startupen eskura jartzen dituen zerbitzuen eta programen zorroa osatzen du, azkenean enplegu gehiago eta hobea sortuko duen ekintzailetza berritzailea sustatzeko.

Programa berriaren laguntzaren ezaugarri nagusien artean, hauek nabarmentzen dira:

- Aholku Batzorde publiko-pribatua, enpresak hazteko funtsezkoak diren gaietan espezializatutako 5 profilez osatua
- Seed Capital Bizkaiaren 100.000 eurora arteko finantzaketa aukera

- Bizkaiko Ekintzailetzaren Nazioarteko Zentrorako eta bere ekitaldien programa osorako eta enpresa-networkingerako sarbidea
- Enpresak bizkortzeko eta hazteko prestakuntza eta gaikuntzarako programa esklusiboa

Azken laguntza-ildo horri erantzuteko, Bizkaiko startupen azelerazioa eta hazkundea sustatzeko prestakuntza eta gaikuntzarako programa esklusibo berria eratu behar da, ***Beaz Acceleration Program*** ekimenaren esparruan.

3. XEDEA ETA LIZITAZIO-EREMUA

Lizitatu beharreko zerbitzua ***Beaz Acceleration Program*** **ekimenean parte hartzen duten startupetan funtsezko gaitasunak garatzeko laguntza teknikoa** ematean oinarritzen da, unean uneko ezagutza, esperientzia eta balio erantsi diferentzial eta berritzaileenak eskainita.

Hauek dira nagusiki programaren helburu orokorrak:

- **Bizkaiko startupen azelerazioa eta hazkundea sustatzea,** ingurunean ahalik eta inpaktu handiena sortzeko:
    - Startupak prestatzea eta gaitzea, beren ekimenak arrakastaz bultzatuko dituzten tresna praktikoak txerta ditzaten.
    - Startupen etorkizuneko hazkundearen oinarriak finkatzea
- Eragin handiko ekimen berritzaileak proiektatuko dituzten **eraldaketa-palankak sortzen laguntzea:**
    - Negozioaren funtsezko faktoreak eta hazkunde-mentalitatearen garapena aurkitzea
    - Lidergo-estrategia garatzea

Hauek dira zerbitzuaren helburu espezifikoak:

- **Programan parte hartzen duten startupen eta talde parte-hartzaileen behar espezifikoak identifikatzea:**

- Ekintzaileei eta profesionalei prestakuntza teoriko-praktikoa emateko bitartekoak zabaltzea.
- Edukiak proiektuen heldutasun egoerara egokitzea

- **Metodologiak eta ezagutza aditua erabiltzea** prestakuntzako ekimenen helburu espezifikoak lortzeko:
  - Funtsezko metodologiak garatzea, benetako arrakasta kasuetan oinarrituta, aukera emango dutenak negozio-egoerei aurre egiteko, ikuspegi kontrajarriez eztabaidatzeko, ekintza plana erabakitzeko edo egoera zailak zuzentzeko ingurune seguruan.
  - Parte-hartzaileei gaitasunak garatzen laguntzea, ingurune akademiko batean kasu errealak eztabaidatuta.
  - Hainbat prestakuntza-modalitateren erabilera sustatzea: ikaskuntza kontzeptuala, ekintzara bideratutako ikaskuntza eta ikaskuntza esperientziala, besteak beste.
  - Lehen pertsonan zenbatutako kasu arrakastatsuetatik datozen esperientzia praktikoen erabilera indartzea, startup parte-hartzaileei eta hezkuntza-abangoardiari balioa emateko prestakuntza programan.

- **Metodologia berritzaileak ikaskuntza-inguruneetan txerta daitezen sustatzea:**
  - Negozio-simulagailuak edo agertokien erabilera eta prospektiba estrategikoa txertatzea, guztia ekonomiaren eta gizartearen etorkizuna markatuko duten gaietara bideratuta.
  - Lankidetza eta eztabaidarako inguruneak sortzea, startupek dudak eta esperientziak partekatzeko modua izan dezaten prestakuntzako profesionalekin.
  - Estatuan eta nazioartean errekonozimendu arrakastatsua duten kasuak erabiltzea startupei modu eraginkorrean eta efizientean eskalatzen laguntzeko.

Zerbitzu honen xedea ez dago sortatan egituratuta. Izan ere, EGIN BEHARREKO LANEN atalean jasotako zereginak modu independentean egiteak zaildu egingo luke kontratua behar bezala gauzatzea, prestazio guztiak koordinatu beharra baitakar, eta hainbat kontratista desberdinek gauzatu beharra.

Zerbitzuaren iraupena amaitzeko, eskainitako zerbitzuak amaituko dira, kontratua sinatzen denetik gehienez ere 12 hilabeteko iraupenarekin, eta beste urtebeteko luzapena egin ahal izango da.

4. EGIN BEHARREKO LANAK

Jarraian azaltzen dira kontratuaren xedea eta identifikatutako helburuak betetzeko egin beharreko lanak. Zereginen zerrendak deskribapen ez-zehatza jasotzen du. Hortaz, gutxienekoen adierazpentzat interpretatzea gomendatzen da:

4.1. I. Fasea. Prestakuntza-ikastaroa prestatzea: edukiak, metodologiak eta egitura operatiboa

Helburua: erakunde esleipenduna arduratuko da programan parte hartzen duten startupen eta talde parte-hartzaileen behar espezifikoak identifikatzeko beharrezkoak diren lanak egiteaz. Era berean, metodologia egokienak hautatuko ditu, eta deskribatutako ikaskuntzako ingurunean lan egiteko beharrezkoak diren teknologia gaitzaileen hedapena koordinatuko du Beazekin.

Egin beharreko lanak eta espero diren emaitzak:

- Eman beharreko trebakuntzaren edukiak prestatzea eta definitzea:
    - Hautatutako startupen profilak aztertzea, startupen prestakuntza-beharrak azeleratzeko eta identifikatzeko programan sartzeko
    - Prestakuntzako edukien multzoa definitzea, identifikatutako premia guztiei erantzungo diena, betiere startupak hazkunde- eta azelerazio-faseetan daudela kontuan hartuta:
        - Aldez aurretik, modulu hauek hartzen dira kontuan (ez zehatza): antolamendu-egitura, lidergoa, talentuaren kudeaketa, kultura,

hazteko alternatibak, finantzaketa, nazioartekotzea, salmenta-estrategiak, eta abar.

- Prestakuntzako moduluetan proposatutako edukiek hazkunde handiko startupen kasu arrakastatsuak erakutsi beharko dituzte, bai nazio mailan, bai nazioartean, parte hartzen duten startupetarako inspirazio eta gida izateko balio dutenak.
- Irakatsi beharreko prestakuntzako moduluen tipologia identifikatzeaz gain, edukia egokitu egin beharko da zailtasunari eta espezializazio mailari dagokienez, parte hartzen duten startupak kontuan hartuta.
- Halaber, garatutako edizio guztietan identifikatutako gaiak landuko dituen modulu gehigarri bat sartzea aurreikusten da. Modulu gehigarri honek "Alumni" kontzeptuan jardungo du, eta programaren historian parte hartzen duten startup guztiak gonbidatuko dira.
- Gutxienez 30 orduko nahitaezko iraupena izango du, eta 6 hilabeteko epean egin beharko da.

- Metodologiak hautatzea:
  - Ikasteko metodologia eraginkorrak eta abangoardiakoak proposatzea eta hautatzea, berariazko helburuak lortzeko. Lortu nahi diren helburuak lortzeko metodologia, diseinu eta formatu egokienak zehazteko behar diren jarduerak egingo ditu erakunde esleipendunak.
  - Aurreikusitako ikaskuntza-metodologiak aukera eman beharko die startup parte-hartzaileei, aditu estrategikoen eskutik, beren negozioak modu eraginkorrean eta efizientean eskalatzeko jardunbide egokienak jasotzeko. Premisa horretatik abiatuta, prestakuntza ematen duen taldeak merkatu-inguruneetako adituak hartu beharko ditu kontuan. Aholku praktikoak, bizitza errealaren adibideak eta beste enpresa aitortu batzuetan funtzionatu duenari (edo ez duenari) buruzko ezagutzak eskaintzea da helburua, landuko diren prestakuntza-eremuak kontuan hartuta.

- Prestakuntza-programa dinamizatzeko beharrezkoak diren lankidetzako tresnen egitura operatiboa eta koordinazioa definitzea, eta proposamenean eskakizun hauek zelan lortuko diren zehaztea:
    - Prestakuntza-programaren ibilbide-orria eta egitura definitzea
    - Saioen egutegia
    - Beazekin koordinatzea, ikasgela birtualaren euskarri-jarduerak definitzeko, edukiak elikatzeko eta dinamizatzeko. Zerbitzuaren eskura jarriko da on-line plataforma hori, startupekiko elkarreragina errazteko. Hona hemen ikasgela birtualaren helburuak:
        - Prestakuntzako edukiak kudeatzea eta on-line eskuragarri daudela ziurtatzea (dokumentuen kudeaketa)
        - Komunikazio-tresna sinkronikoak (txata eta bideokonferentzia) eta asinkronoak (foroak eta mezularitza) eskaintzea
        - Lankidetza- eta eztabaida-inguruneak sortzea, startupek zalantzak eta esperientziak partekatu ahal izan ditzaten prestakuntzako profesionalekin.
        - Parte hartzen duten startupen zerbitzura jarritako tutoretzak koordinatzea
        - Ebaluazio-tresnak erabiltzea: zereginak, galdetegiak eta gogobetetze-inkestak

Entregatzekoak:

- Garatutako prestakuntza-programa: helburuak, edukiak eta euskarri-metodologia
- Beharrizanetarako ad-hoc prestakuntzako programa gauzatzeko plangintza, egitura operatiboa eta ibilbide-orria
- Ikasgela birtual definitua, egituraren eta eduki erabilgarrien mailan, Beazekin koordinatuta

Gutxi gorabeherako iraupena: 2 hilabete.

4.2. II. Fasea. Prestakuntzako programa abiaraztea eta koordinatzea

Helburua: erakunde esleipenduna arduratuko da prestakuntzako programa abiarazteaz eta ikastaroa dinamizatzeko behar diren ekintzak garatzeaz, baita aurrerapen mailak ebaluatzeko eta, behar izanez gero, edukiak berregituratzeko behar diren tresnak hedatzeaz ere.

Egin beharreko lanak eta espero diren emaitzak:

- Prestakuntzako programaren kick-off. Prestakuntzako moduluak eta jardunbidearen funtzionamendua aurkezteko jardunaldi bat antolatzea
- Ikastaroa ematen den 6 hilabeteetan, erakunde esleipendunak honako helburu hauek lortzeko beharrezkoak diren lanak egingo ditu:
    - I. fasean zehaztutako prestakuntzako programa aurrez aurre ematea, on-line laguntza puntualekin.
    - Startupen jarraipena eta aurrerapena monitorizatzeko tresnak izatea, eta beharrezko ekintzak ezartzea honako hauetarako:
        - Prestakuntza-ibilbidea sakontzea edo birbideratzea, Aholku Batzorde publiko-pribatuarekin koordinatuta
        - Startupek prestakuntza-ibilbidean duten parte-hartzea monitorizatzea
    - Tutoretza zerbitzua eskaintzea startupak lagundu eta dinamizatzeko prestakuntza-ekintzak irauten duen bitartean. Talde prestatzaileak taldeko tutoretzen eskema bat jarri beharko du parte hartzen duten startupen zerbitzura, zalantzak argitzeko. Tutoretza horiek dinamizatuko dituzte, bai prestatzaile gisa parte hartzen duten pertsona berek, bai zuzendari akademikoak, egoki iritziz gero. Tutoretza horiek, prestakuntzako ekintzak irauten duen 6 hilabeteetan, 4 ordu iraungo dute gutxienez.
- Prestakuntzako programa amaitu ondoren, edukiak formatu digitalean egongo dira eskuragarri ikasgela birtualean, Beazek koordinatutako on-line plataforman, eta zerbitzuaren eskura jarriko dira.

Entregatzekoak:

- Prestakuntza-ekintzarako sortutako eduki eta material didaktikoak (formatu digitalean eskuragarri) ikasgela birtualean

Gutxi gorabeherako iraupena: 6 hilabete.

4.3. III. Fasea. Prestakuntzako programa amaitzea eta emaitzak ebaluatzea

Helburua: erakunde esleipenduna arduratu beharko da prestakuntzako programa amaitzeaz eta dagozkion hobekuntza-proposamenak ebaluatu eta definitzeaz.

Egin beharreko lanak eta espero diren emaitzak:

- Prestakuntzako programaren amaiera:
    - Prestakuntzako programan arrakasta izan duten kasuak identifikatzea
    - Beazekin koordinatzea, programa ixteko jardunaldi bat antolatzeko, kasu arrakastatsuak ikusarazteko eta ikasitakoa trukatzeko.
- Prestakuntzako programaren ebaluazioa:
    - Erakunde esleipendunak, Beazekin koordinatuta, prestakuntzako ekintza ebaluatzeko inkesta bat egingo du, hauexek islatuko dituena: moduluekiko gogobetetzea, programarekiko itxaropenak eta beharrak, ikaskuntza-metodologia, tutoretzak eta jarraipena, kasu praktikoak, eta beste gai batzuk.
    - Inkesta horren emaitzetatik abiatuta, erakunde esleipendunak memoria egingo du, aurreko ebaluazioa, ondorio nagusiak eta hobetzeko proposamenak jasoko dituena, epe luzerako prestakuntzako programa etengabe hobetzeko sistema bat ezarri ahal izateko.
- ***Beaz Acceleration Program*** prestakuntzako ikastaroan parte hartu izanaren ziurtagiria egitea

Entregatzekoak:

- Arrakasta kasuak
- Ebaluazio-txostena: ikasitako ikasgaiak eta hobetzeko proposamenak

- Partaidetza-ziurtagiria

Gutxi gorabeherako iraupena: Hilabete bat

4.4. Proiektuaren jarraipena eta itxiera

Jarraipena adierazitako metodologiaren eta laneko planaren arabera egingo da, eta beharrezko dokumentazioa sortuko da. Proiektu horren emaitza txosten bat izango da, gutxienez puntu hauek jasoko dituena:

- Laneko plana.
- Prozesuan erabilitako metodologia.
- Egindako jardueren memoria.
- Txostena: ikasitako ikasgaiak eta hobetzeko proposamenak.

Dokumentazioa baloratzeko, B gutun-azalean aurkeztu beharko da, honelaxe:

✓ Lehenik eta behin, **lan-zereginen metodologia eta ikuspegia** jasoko dituen atal bat sartuko da, eman beharreko zerbitzua ulertzen dela eta ezarritako helburuak lortzen direla bermatzeko. Besteak beste, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Eman beharreko prestakuntzako edukiak
  - Startupen prestakuntzako beharrak identifikatzeko eta, ondoren, edukiak egokitzeko modua definitzea
  - Eduki-multzoa eta proposamenaren logika
- Erabili beharreko ikaskuntza-metodologiak
  - Zalantzak argitzeko talde-tutoretzetarako metodologia (talde-tutoretzak soilik aipatuta (gutx. 4h/6 hilabete)
  - Prestakuntzako modulu bakoitzari lotutako kasu praktikoak eta benetako adibideak
- Prestakuntzako programaren ebaluaziorako proposamena:

- Hedapen-elementuak (arrakasta kasuak) eta prestakuntzako ikastaroan parte hartu izanaren ziurtagiria

✓ Bigarrenik, **lan-taldearen kalitateari eta egokitasunari** buruzko informazioa aurkeztuko da. Eskatutako gutxieneko profilen kaudimen tekniko eta profesionalerako curriculum vitaeak aurkeztu ondoren, atal honetan argi eta garbi adierazi beharko da proiektua garatzeko ardura duen lantaldeak zer alderdi gehigarri eta balio-judizioen bidez balora ditzakeen. Besteak beste, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Eman beharreko prestakuntzako modulu bakoitzari profilak nola egokitzen zaizkion zehazten duen eskema:
  - Gainera, prestakuntza-taldeak lehen pertsonan eskain ditzakeen aholku praktikoen, bizitza errealaren adibideen eta ezagutzen xehetasuna justifikatu beharko da, landuko diren prestakuntzako eremuak kontuan hartuta.
  - Beharrezkoa izango da, hala badagokio, proposatutako prestatzaileek irakasle gisa duten esperientzia justifikatzea, esperientziarik balego.
- Proiektuari esleitutako dedikazio mailak eta nola dagoen dedikazio hori profilen eta zereginen artean banatuta proiektuan zehar.

✓ Hirugarrenik, **lanaren plangintza** erakutsi beharko da, atazekin, mugarriekin, lantaldeko parte-hartzaileen zerrendarekin eta entregatzekoekin. Besteak beste, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Lanaren kronograma eta prestakuntza-saioen egutegia
- Prestakuntzako programa dinamizatzeko beharrezkoak diren lankidetzako tresnen egitura operatiboa eta koordinazioa definitzea. Atal honetan, hauek definitu beharko dira:
  - Beazekin koordinatzea, ikasgela birtualaren euskarri-jarduerak definitzeko, edukiak elikatzeko eta dinamizatzeko. Zerbitzuaren eskura jarriko da on-line plataforma, startupekiko elkarreragina errazteko.

- Tutoretzak startupekin eta euskarri-tresnekin koordinatzeko proposamena (taldeko tutoretzak soilik aipatuta gutx. 4H/6 hilabete)

- Prestakuntza-programa irekitzeko eta ixteko jardunaldien koordinazioa eta edukia
- Proiektuaren jarraipena egiteko eta proiektua garatzean ager daitezkeen arriskuak kudeatzeko tresnak proposatzea

5. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintzak baloratzeko, Beazek irizpide hauek hartuko ditu kontuan, lizitazio honetako administrazio-klausula berezien agiriko 2.5.2 atalean agertzen diren bezala:

Izaera intelektual nabarmeneko prestazioak xede dituen kontratua denez, kalitatearekin lotutako irizpideek garrantzi handia izan behar dute irizpide ekonomiko hutsekin alderatuta.

5.1. Automatikoki zenbatetsi daitezkeen irizpideak: 51 puntu.

- **Proposamen ekonomikoa (21 puntu)**

  Gehienez ere 21 puntu emango dira, administrazio-klausula berezien agiriko 2.5.2.2 atalean jasotako formularen arabera.

- **Hobekuntzak ikastaroko ordu kopuruan (15 puntu)**

  Prestakuntza ikastaroa prestatzea edukiak, metodologiak eta egitura operatiboari buruzko atalean, garatu beharreko zereginen artean, gutxienez 30 ordu sartzen dira.

  Prestakuntzako programan eman beharreko ordu kopurua handitzeagatik 15 puntu emango dira gehienez:

0 ikastordu gehigarri.	0 puntu.
+3 ordu.	7,5 puntu.
+6 ordu	15 puntu.

- **Hobekuntzak zalantzak argitzeko ordu kopuruan (15 puntu)**

  Prestakuntzako programa abiaraztea eta koordinatzeari buruzko atalean, garatu beharreko zereginen artean, zalantzak argitzeko taldeko tutoretzen 4 ordu sartzen dira gutxienez, prestakuntzako ekintzak irauten duen 6 hilabeteetan.

  Gehienez 15 punturekin baloratuko da Zerbitzuaren eskura ordu-poltsa bat jartzea zalantzak argitzeko, modu asinkronoan (mezularitza) prestakuntzako programan parte hartzen duen startup bakoitzaren eskura:

0 ikastordu gehigarri.	0 puntu.
+ ordu 1 startup bakoitzeko (guztira 5 orduko poltsa)	7,5 puntu.
+ ordu 2 startup bakoitzeko (guztira 5 orduko poltsa)	15 puntu.

5.2. Automatikoki ezin zenbatetsi daitezkeen irizpideak: 49 puntu.

- **Metodologia eta ikuspegia (19 puntu)**

  B gutun-azalean eskatutako dokumentazio teknikoan oinarrituta, aurkeztutako metodologiaren egokitasuna eta proposamenaren koherentzia orokorra baloratuko dira, 19 puntu gehienez. Konpondu beharreko beharra ondo ulertzeak zehaztuko du zer ikuspegi emango zaion emandako zerbitzuari eta, ondorioz, zer jarduera egingo diren, eta horiek zehaztuko dute identifikatutako helburuen irismena eta lorpena. Edozelan ere, kontuan izan behar da planteamendu metodologikoak aipatutako eskakizun guztiak estali beharko dituela.

  Era berean, hazkunde handiko startupen kasu arrakastatsuen deskribapen zehatza baloratuko da, nazioan zein nazioartean, startup parte-hartzaileentzako inspirazio eta gida izateko balio dezaten. Kasuek enpresa aitortuen benetako adibide praktikoak eskaintzea baloratuko da, lehen pertsonan zenbatuta, landuko diren prestakuntzako esparruak kontuan hartuta.

Metodologia- eta ikuspegi-irizpidearen balorazioa honela egingo da:

Metodologia	**Gehieneko puntuazioa**	**Bikaina**	**Ona**	**Ertaina**	**Oinar.**	**Ez da aurkezten edo ez dagokio**
Ehunekoa	% 100	% 100	% 75	% 50	% 25	-
Puntuazioa	19	19	14	10	5	Bazterketa:

Balorazioak honako deskribapen hauek ditu:

- Bikaina: proposamenak balio handia ematen du, baldintza teknikoen agiriko eskakizunak kontuan hartuta eta horiek guztiak modu argian garatuta, proposatutako metodologiak eta haren xehetasunek zerbitzua gogobetetasun maila bikainarekin emango dela bermatzeko moduan. Era berean, eskatutakoaz bestelako ekarpen disruptiboak ere jasotzen ditu.

  Gainera, bere planteamenduan, edukiak proposatutako egiturara egokitzea eta lehen pertsonan zenbatutako enpresa aitortuen benetako adibide praktikoak txertatzea jasotzen du, landuko diren prestakuntzako eremuak kontuan hartuta.

- Ona: proposamenak balio handia ematen du, baldintza teknikoen agiriko eskakizunak kontuan hartuta eta horiek guztiak modu argian garatuta, proposatutako metodologiak eta haren xehetasunek zerbitzua gogobetetasun maila egokiarekin emango dela bermatzeko moduan.

- Ertaina: proposamenak baldintza teknikoen agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta zerbitzua behar bezala eta gogobetetze-maila egokiarekin ematen dela ziurtatzen du.

- Oinarrizkoa: proposamenak baldintza teknikoen agiriko eskakizunak jasotzen ditu, baina ez du biderik ematen zerbitzua behar bezala emango dela ziurtatzeko.

- Ez da aurkeztu edo ez dagokio: proposamenak ez du horri buruzko konponbiderik jasotzen, edo planteatutako konponbideak ez ditu betetzen baldintza teknikoen agiriko eskakizunak.

- **Lantaldearen kalitatea eta egokitasuna (20)**

  Proiektu honetarako izendatutako taldearen kualifikazioari eta egokitasunari 20 puntu emango zaizkio gehienez. Lan-taldearen ezagutza orokorrak eta esperientzia espezifikoa baloratuko dira, baita proiektua garatzeko aurkeztutako taldearen profesional-kopurua eta koherentzia eta txostengile gisa izandako esperientzia ere.

  Lan-taldean, kaudimen teknikoan eta profesionalean adierazitako baldintzak betetzea gutxienekotzat joko da.

  Lantaldearen kalitate- eta egokitasun-irizpidearen balorazioa honela egingo da:

Lantaldearen kalitatea eta egokitasuna	**Gehieneko puntuazioa**	**Bikaina**	**Ona**	**Ertaina**	**Oinar.**	**Ez da aurkezten edo ez dagokio**
Portzentajea	% 100	% 100	% 75	% 50	% 25	-
Puntuazioa	20	20	15	10	5	Bazterketa:

  Balorazioak honako deskribapen hauek ditu:

  - Bikaina: aurkeztutako proiektu-taldea koherentea eta konpentsatua da, eta proiektuaren helburuak lortzeko esperientzia eta ezagutzak gainditzen ditu. Halaber, baloratuko da merkatu-inguruneetatik datozen aditu estrategikoak prestakuntza-taldean sartzeak aurkeztutako talde osoaren % 90 gainditzea. Aditu horiek, lehen pertsonan, benetako arrakasta kasuak eta aitortutako enpresa-esperientziak izan ditzakete. Helburua startup parte-hartzaileak beren negozioak modu eraginkorrean eta efizientean eskalatzen gidatzea da.

  - Ona: aurkeztutako proiektu-taldea koherentea da, esperientzia eta ezagutza nahikoak ditu, eta proiektuaren helburuak lortzeko

konpentsatuta dago. Hala ere, merkatu-inguruneetatik etorritako prestakuntza-taldea ez da % 70etik gorakoa.

- Ertaina: aurkeztutako proiektu-taldea koherentea da, nahikoa esperientzia eta ezagutza ditu, baina ez dago konpentsatuta, prestatzaileen % 50 ez baitator merkatu-inguruneetatik.
- Oinarrizkoa: aurkeztutako proiektu-taldeak gabeziaren bat du esperientziari edo ezagutzei dagokienez.
- Ez da aurkeztu edo ez dagokio: aurkeztutako proiektu-taldea ez da koherentea proiektuaren helburuak lortzeko.

- **Lanaren plangintza (10 puntu)**

  Lizitatzaileak proposatutako laneko programaren edukia eta xehetasun maila planifikatzea 10 punturaino baloratuko da. Ezarritako helburuak lortzeko, oso garrantzitsutzat jotzen da laneko plan zehatza eta koherentea izatea, garatuko den zeregin eta jarduera bakoitza argi eta garbi deskribatuta, zeregin bakoitzerako entregatzekoak diren gaien zerrenda zehatza, mugarri nagusiak, zeregin bakoitzeko arduradunen eta parte-hartzaileen identifikazio xehatua, haien ezagutzen eta esperientziaren arabera, baita helburuen lorpena zehaztuko duten adierazleak ere.

  Metodologia- eta ikuspegi-irizpidearen balorazioa honela egingo da:

Lanaren plangintza	**Gehieneko puntuazioa**	**Bikaina**	**Ona**	**Ertaina**	**Oinar rizkoa**	**Ez da aurkezten edo ez dagokio**
Ehunekoa	% 100	% 100	% 75	% 50	% 25	-
Puntuazioa	10	10	7,5	5	2,5	Bazterketa:

Balorazioak deskribapen hauek ditu:

- Bikaina: aurkeztutako plangintza behar bezala egituratuta dago, eta proiektuaren helburuak lortzeko behar diren alderdi guztiak biltzen ditu.

Era berean, argi eta garbi zehazten ditu proiektua behar bezala garatzeko beharrezkoak diren egitura operatiboa eta koordinazio-elementuak.

- Ona: aurkeztutako plangintza behar bezala egituratuta dago, eta proiektuaren helburuak lortzeko behar diren alderdi guztiak biltzen ditu. Hala ere, egitura operatiboaren eta koordinazioaren xehetasuna ez da onena.
- Ertaina: aurkeztutako plangintza proiektuaren helburuak lortzeko egituratuta dago, baina hura lortzea zaildu dezakeen gabeziaren bat du.
- Oinarrizkoa: aurkeztutako plangintzak gabezia handiak ditu proiektuak ezarritako helburuak lortzeko.
- Ez da aurkeztu edo ez dagokio: aurkeztutako plangintza ez dator bat proiekturako ezarritako helburuekin.

B gutun-azalean ***"Ikastaroko ordu kopuruan hobekuntzak egiteko"*** konpromisoari buruzko edozein informazio sartuz gero, berehala kanporatuko da erakunde eskaintzailea. Izan ere, C gutun-azalean automatikoki sartu beharreko irizpide ebaluagarritzat jotzen da informazio hori.

B gutun-azalean ***"Zalantzak argitzeko ordu kopuruan hobekuntzak egiteko"*** konpromisoari buruzko edozein informazio sartuz gero, berehala kanporatuko da erakunde eskaintzailea. Izan ere, C gutun-azalean automatikoki sartu beharreko irizpide ebaluagarritzat jotzen da informazio hori.

Ebaluazio teknikoan (Automatikoki zenbatu ezin diren irizpideak: 49 puntu) adierazitako gutxieneko puntuazioa (24 puntu) gainditzen ez duten proposamenak ebaluazio ekonomikoaren prozeduratik kanpo geratuko dira zuzenean, proposamen ekonomikoa eta hobekuntzena kontratazioaren helburua behar bezala ezagutu gabe egin dela ulertzen delako eta, ondorioz, beste proposamen batzuei esleitutako puntuazio ekonomikoa artifizialki alda dezaketelako.

6. KAUDIMEN-IRIZPIDEAK

6.1. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

a) Irizpidea: Azken hiru (3) urteetako, urteko negozio-bolumena.

Gutxieneko baldintza: Urteko negozio-bolumena, ekitaldiari dagokionez, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldien barruan (2022, 2023 eta 2024), kontratuaren balio zenbatetsiaren berdina edo handiagoa dena, 144.000 €, BEZik gabe.

Egiaztapena. Erantzukizunpeko adierazpena, 7. eranskinaren arabera.

1. Erantzukizunpeko adierazpena betetzea: Onetsitako eta enpresa inskribatuta egon behar den Merkataritza Erregistroan edo Erregistro Ofizialean sartutako urteko kontuetan jasotako balioak kontsignatuko dira. Baliozko arrazoi batengatik lizitatzaileak urteko kontuak onartuta eta gordailututa ez dituenean, adierazpenean horren arrazoia jasoko du.

2. Merkataritza Erregistroan izena emanda ez duten enpresari indibidualek eta aurreko atalean adierazitako arrazoi baliozkoa adierazi duten enpresariek beren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatuko dute. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren adierazpeneko 303 eta/edo 390 ereduak edo Sozietateen gaineko Zergaren adierazpeneko 200 eredu baliokidea aurkeztuko dute.

3. Enpresaren sorrera-dataren ondorioz ezin bada egiaztatu eskatutako aldi guztietako negozio-zifra, eskatutako urteko zifra egiaztatuko da, enpresaburuaren jarduerak hasi eta hurrengo ekitalditik aurrera.

b) Lanbide-arriskuengatiko kalte-ordainetarako aseguru baten egiaztagiria, kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbateko berekoa edo handiagoa duena. Baldintza hori egiaztatzeko, aseguru-etxeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan, aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak adieraziko dira, bai eta kontratuaren exekuzioa estaliko duen aseguruaren epemuga ere, eta haren zenbatekoa ez da izango kontratuaren lizitazio-aurrekontua baino txikiagoa. Gainera, hala dagokionean, asegurua luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslea ere aurkeztu beharko da.

6.2. Gaitasun teknikoa eta profesionala:

1. SPKLren 90.1.a) artikuluaren arabera, azken hiru urteetan egindako bi lan edo zerbitzu nagusiak zerrendatuz, betiere kontratu honen xedearen izaera bera edo antzekoa duten 5 urte baino gehiagoko antzinatasuna badute, hau da, startupen azelerazioa eta hazkundea sustatzen duten prestakuntza-programak.

2. SPKLren 90.1.b) artikuluaren arabera, eskaintzaileak lantalde bat proposatu beharko du. Lantalde hori osatuko dute **zuzendari akademiko batek,** gutxienez hamar urteko esperientzia duena, eta gutxienez **teknikari laguntzaile** batek, bi urteko esperientzia duena aipatutakoen antzeko lanetan. Gainera, **prestakuntza- eta tutoretza-lanetan diharduten langileen zerrenda** erantsi beharko da, eta hautatutako pertsonen curriculum vitaeak aurkeztu, proposamen metodologikoan aurreikusitako prestakuntza-programa kontuan hartuta:

    i. Zuzendari akademikoa. Startupen azelerazioarekin eta hazkundearekin lotutako prestakuntza-edukietan aditua, goi-mailako titulazioa eta esperientzia duena:

        - Neurrirako prestakuntza- eta gaikuntza-proiektuak diseinatzea eta kudeatzea, eta ezagutzaren aplikazio praktikoan oinarritutako ikaskuntza-prozesuak garatzea
        - Gutxienez bost urteko esperientzia azken hamar urteetan azelerazio eta enpresa-hazkundeko inguruneetan prestakuntza-proiektuak ezartzen
        - Ezagutza zabalak erreferentziazko enpresa-azelerazioarekin eta -hazkundearekin lotutako gai eta tresnei buruz, ez bakarrik prestakuntza-edukiei buruz, baita startupek hazkunde-faseetan garatu behar dituzten trebetasun bigunei eta gaitasun pertsonalei buruz ere
        - Harreman-kapital zabala, planteatutako prestakuntza-taldearen koordinazio optimoa bermatzeko eta bertan aldaketak egin behar izanez gero neurri zuzentzaileak ezarriko direla ziurtatzeko.

- Material didaktikoak sortzeko eta banatzeko tresna teknologikoei buruzko ezagutzak
- Bulegotika tresnen eta eduki-kudeatzaileen erabilerari buruzko ezagutzak

ii. Laguntza-teknikaria Goi-mailako titulazioa duen eta, gutxienez, 2 urteko esperientzia duen pertsona, antzeko prestakuntzako programen jardunean koordinazio- eta euskarri-lanak egiten.

iii. Prestakuntzako lanetan diharduten langileen zerrenda. Aipatutako langileek gutxienez bost urteko esperientzia egiaztatu beharko dute EGIN BEHARREKO LANEN atalean deskribatutakoen antzeko zereginetan, definitutako prestakuntzako edukien multzoari dagokionez. Profil horiek ingurune akademikotik edo enpresa-ingurunetik/startupetik etor daitezke, eta esperientzia handia egiaztatu beharko da emateko proposatzen den prestakuntza-ikasgai bakoitzean.

Lan-taldea pertsona berberek osatuko dute kontratuak irauten duen bitartean, programaren modulu bakoitzean aritzen diren pertsonei dagokienez, salbu eta horrela zehazten diren eta kideetako bat ordezkatzea eragiten duten salbuespenezko zirkunstantziak badaude.

Kontratua gauzatzen ari den bitartean, enpresa esleipendunak eskaintzan proposatutako giza baliabideren bat aldatu behar badu, Beazi jakinarazi ondoren eta haren adostasunarekin egin ahal izango du, baina horrek ez du esan nahi lanen kalitatea edo hitzartutako datak murriztuko ez direnik. Beazek beretzat gordetzen du taldeko kide baten edo guztien ordezkapena eskatzeko eskubidea, horretarako arrazoi justifikatua dagoenean. Zerbitzua ematen duen erakundeak nahitaez erantzun beharko dio eskaera horri.

Adierazitako lanbide-profilek gutxienekoen talde bat osatuko dute. Edozelan ere, erakunde esleipendunak zerbitzuaren beharretara egokitu beharko du, zeregin bakoitza egiteko baliabide egokiak esleituta, eta goian adierazitako profiletako pertsonak zentzuz izendatuta.

Egiaztapena:

1. Aurreko 1. puntuan deskribatutako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, erreferentzia hauek erabiliko dira: a) eginiko lan edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, atal hauek dituena: titulua, hasiera-data, emandako urtekoak, zein erakundek eman duen, zein publikok eman duen eta zein zeregin egin dituen; eta b) organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean. Hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, halakorik ezean, erakunde lizitatzaileak egindako adierazpen baten bidez, haren esku dauden dokumentuekin batera, prestazioa egin dela egiaztatzeko.

2. Curriculum vitaeak aurkeztuko dira. Bertan, langile bakoitzaren izena, zerbitzua eman zuen enpresaren izena, proiektuan betetako lanpostua edo kategoria, egiaztatu nahi den jarduera, hasiera-data eta lanen iraupena adieraziko dira.

   Era berean, prestakuntza- eta tutoretza-lanetan diharduten langileen kasuan, irakatsi beharreko modulu/gai bakoitzeko esperientzia esplizitua deskribatuko da, baita haien profila modulu/gai horretara zenbateraino egokitzen den ere.

7. AZKEN XEDAPENA

Indarreko hizkuntza araubidearen betebeharrak betetzeko, honako betebehar hau dago: enpresa adjudikaziodunek lanak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztea, berariaz bestelakoa esaten denean izan ezik. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du bere gain hartuko, inola ere, aholkularitza- eta laguntza-kontratu baten ondoriozko dokumentu idatzien itzulpenik.

Horren ordez, enpresa edo erakunde lizitatzaileak edozein frogabidez egiaztatu ahal izango du hizkuntzaren arloko gaitasun eta kaudimenen baldintzak betetzen dituela, eta enpresa edo erakunde esleipendunak kontratua gauzatzeko fasean egiaztatu beharko du hori.

Agiri honetako artikulu guztiak kontratuan zehaztutakoaren mende daude, eta zalantza edo kontraesanik izanez gero, kontratuan ezarritakoa nagusituko da.